

## -Hator Hator

**Hator, hator mutil etxera  
gaztaina ximelak jatera,  
Gabon gaba ospatutzeko  
aitaren ta amaren ondoan.  
Ikusiko duk aita barrezka  
amaren poz atseginez.**

**Eragiok, mutil, aurreko danbolin  
horri.**

**Gaztainak erre artian,  
gaztainak erre artian,  
txipli txapla, pum!**

**Gabon gaba pozik igaro daigun.**

## ETXE HONETAN ( Josu Bergara)

Barrero be lotuko gara,  
sutondoan danok batera,  
– Olentzero noiz dator, ama? –  
txikixen betiko galdera.

**Gabon gabian alkartuta,  
senide, herritar, lagunak,  
etxe honetan sartzen dana,  
etxekotzat hartuko da.**

Aintzina eitxen zan antzera,  
hauxe da geure herriko ohitura,  
badator urte amaiera,  
min danak botaizuz sutara!

**Gabon gabian alkartuta...**

Geuretzat hauxe da handixena,  
munduko altxorrik ederrena,  
amumak jagon eban euskara,  
gaur lobak eingo dau berbera.

**Gabon gabian alkartuta...**

## **-Olentzero**

**Olentzero joan zaigu  
mendirala lanera  
intentzioarekin  
ikatz egitera.  
Aitu duenian  
Jesus jaio dela  
lasterka etorri da  
berria ematera.**

**Horra! Horra!  
Gure Olentzero!  
Pipa hortzian duela  
eserita dago  
kapoiak ere ba(d)itu  
arraultzatxuakin  
bihar meriendatzeko  
botila ardoakin.**

**Olentzero buru haundia  
entendimentuz jantzia  
bart arratsean  
edan omen du  
bost arrobako zahagia.**

**Hoi urde tripa haundia  
Olentzero buru handia;  
Hoi urde tripa haundia  
bost arroako zahagia.**

## **-Din Dan Don**

**Din dan don, din dan don!  
Eguberri on!  
Zorion, zorion!  
gabonak, din-dan, don!  
Din dan don, din dan don!  
Eguberrion!  
Zorion, zorion, Gabonak Gabon!**

**Izar bat hasi da dizdizka zeruan  
berri onak zabaltzen ari zaigu  
munduan.**

**Jaio da, jaio da, Jaunaren semea,  
askatxo batean dago, lastoen  
gainean.**

**Din dan don...**

## **-Gaur Gabon**

Hau da egun alaia  
gaur gabon, gaur gabon.  
Poztu zaitez anaia  
gaur gabon gaba.  
Jesus dator gugana,  
goazen gu beragana.

Gaur gabon, gaur gabon,  
gaur gabon gabon gaba,  
gaur gabon gaur gabon  
gaur gabon gaba.(bi)

**-GAU IXILA(Stille Nacht)**

**Gau ixila, gau zuria,  
kalean euria  
eta etxean ospatzen dira  
zorian gabon afariak,  
Gaur jaio zaigu-eta  
Belenen haur txikia.**

**Gau erdian, aingeruak  
kantari zeruan;  
gaur gizonentzat eguberri  
Elkar maite dezaten beti,  
Baina isildu gaitezen  
Haurra lotara dadin.**

**Zatozte kristauak(Adeste Fideles)**

**Zatozte kristauak, bihotzak  
pozturik;  
zatozte guztiok, Betlehenera,  
jaio dan gure Jesus ikustera;  
Jauna gurtu dagigun  
Jauna gurtu dagigun  
Jauna gurtu dagigun  
ahozpezturik.**

**GABON KANTARI, 2018**

**(kantu liburuxka eskuragarri LANKOPIIn)**